

1994ko uztailak 15

242. zenb.

PRESS

RRASATE



**Zerrajera:
langileen
esku?**



JOSKINTZA INDUSTRIALA **IKASTAROA**

Arrasateko Udalak 1994ko enplegurako prestakuntza programa barruan Joskintza Industrialari buruzko ikastaro bat antolatu nahi du, honako ezaugarriekin.

Edukinak:

- Joskintza industrialaren eremuan kate-produkziorako prestakuntza praktikoa.
- Enpresa-gestio eta antolakuntza kooperatiboko oinarrizko ezagupenak.

Betebeharrak:

- Langabezian egotea.
- Joskintza arloan enpresa bat eratzeko gertu egotea.
- Ikastarora joateko konpromezua.

Iraupena:

- 1994ko urriaren 3tik 1995eko uztailaren 4arte.

Ordutegia


- Astelehenetik ostiralera, bi fasetan:
 1. fasean (3 hilabete): 8etatik 12etara edo 12etatik 18etara.
 2. fasea (6 hilabete): 8etatik 13etara edo 14.30etatik 18.30etara.

Izenak emateko:

Arrasateko Udalaren Enplegu Zerbitzuan, 1994ko uztailaren 29a baino lehen.

***Informazio gehiago Arrasateko
Udalaren Enplegu Zerbitzuan.***

Zer da zuretzat ikurriña?



Florencio Gonzalez
Jubilatua
(60 urte)

Ba, Euskal Herriko ikur bat, besterik ez.



Dolores Astondoa
Fagorreko langilea
(49 urte)

Euskaldun guztion sinbolorik garrantzitsuen.




Juan Vicens
Langilea
(35 urte)

Ni ez naiz hemengo, Katalana naiz. Baina oso ondo iruditzen zait hemen ikurriña izatea, herrialde bakoitzak bere ikurra izan behar baitu.



Karmen Iturbe
Langabetua
(37 urte)

Nire bandera da. Euskaldunon ikurra da.



Eloi Marteatxe
Langilea
(35 urte)

Ikurriñagatik borrokatu zenean eta udaletxeetan jartzea lortzea klorpen garrantzitsua izan zen. Gaur egun, berriz, ez dit ezer berezirik esaten.



Pilar Santos
Etxekoandrea
(74 urte)

Euskadiko sinbola da eta gainera, berarengatik asko borrokatu zenez, garrantzi handia dauka.



Jon Zubiaga
Jubilatua
(60 urte)

Niri egia esan, ez dit gauza handirik esaten. Badakit ikurriñaren alde asko borrokatu dela, baina hori barruan eraman behar den zerabait da.



Pilar Velasco
Etxekoandrea
(66 urte)

Niri asko gustatzen zait ikurriña, oso kolore politak ditu eta.

• ARRASATE PRESS •

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Arantzasu Loidi. **Kazetariak:** Ixaro Zubillaga, Maider Egües, Maria Agirre. **Publizitatea:** Jasone Mendizabal eta Ikerne Altube (77 08 15). **Administrazioa:** Agurtzane Gaintzarain eta Itsaso Errasti (Tfnoa: 77 08 15). **Maketazioa:** Txos Azurmendi. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Blanka Jauregi, Esther Balanzategi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Udalako Ingurugiro Eskola, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Jon Iñaki Lasa, Xabier Letona, Ihintza, Mikel Olabe, Mari Tere Alonso, Liher Larrea, Antton del Campo, Sorginak, Kofi, Daniel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondoa, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. Tirada: 5.500. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).



ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azaleko argazkia: Unai Loidi.

PRESS
ARRASATE

Harpidetza:
77 08 15

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak
 Arrasateko Eskualde-Ospit.79 53 00
 Iguualatorria79 05 00
 Santa Agedako Ospitalea
 (gizonak)79 39 00
 (emakumeak)79 44 11
 Buru osasunerako zentrua79 90 11

Gurutze gorria
 Bergara76 55 76

DYA
 Antzuola76 62 91

Anbulatorioak
 Arrasate (Larrialdiak)79 13 57
 (Txanda hartzeko)77 03 46
 77 07 21
 Oñati78 08 52
 Eskoriatza79 98 58
 Aretxabaleta79 74 58
 Aramaio(945) 45 51 16

Anbulantziak
 Gipuzkoako ambulanziaz45 87 44

Udaltaingoa
 Oñati78 04 11
 Bergara76 14 69
 Arrasate79 14 39
 Aretxabaleta79 10 52
 Eskoriatza79 03 22

Ertzaintza
 Arrasate79 71 99

Suhiltzaileak
 Udal taldea79 09 00
 Udal taldeko suhiltzaile burua79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea78 28 00

Matxurak
 Urak (udal zerbitzua)79 09 00
 Elektrizitate (Iberduero)12 01 62
 Gasak900 40 05 23
 79 78 44
 79 76 78

Garraioak
 Taxiak79 12 22
 P.E.S.A.79 14 19

Hirugarren adinekoentzako zentruak
 Iturbide Egoitza79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza79 81 57

Kontsumitzailearentzako informazioa
 Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarte79 87 77
 KIUB-OMIC79 51 55

Monterongo liburutegia
 Monterron77 01 05

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 15
 Egunez 22.00ak arte: Ruiz, Magdalena.
 Gaeuz: Guallar. San Antonio.

Larunbata 16
 Egunez eta gaeuz: Morales, San Andres.

Igandea 17
 Egunez eta gaeuz: Corcuera, Musakola.

Astelehena 18
 Egunez eta gaeuz: Irizar, Erguin.

Astearte 19
 Egunez eta gaeuz: Ruiz, Magdalena.

Asteazkena 20
 Egunez eta gaeuz: Morales, San Andres.

Osteguna 21
 Egunez eta gaeuz: Corcuera, Musakola.

15 OSTIRALA

ZINEA
 "Memorias de un hombre invisible" 7etan eta 10etan.

SANTAMAINAKO JAIAK
 3etan Xake txapelketa Alkatezako lokaletan eta ping-pong txapelketa patioan. 5etan Makatzenako pistetan, 14 urte bitartekoentzat marrazki lehiaketa. 7.30etan Montserrat tabernan, III. futbolin txapelketa bikoteentzat. 12etan "Tropico" taldeak alaituriko dantzaldia goizalderarte.

PORTASOLEKO JAIAK
 7etan jai hasierako txupinazoa. 7.15etan buruhandiak eta erraldoiak. 10.etan "Izadi" taldearekin dantzaldia.

ANTZUOLAKO JAIAK
 10.30etan gaztelu puzgarriak eta kotxe elektrikoak Plazan.. 2.30etan gazteen bazkaria herriko plazan. 6.30etan kalejira "Tirri-Tarra" txarangarekin. 10.30etan "Gaubela" taldearekin dantzaldia 1.30etan Rock jaialdia

16 LARUNBATA

ZINEA
 "Misterio en Manhattan" 5etan, 7.30etan eta 10etan.

SANTAMAINAKO JAIAK
 9.30etan goiz-eresia suziriekin. 10etan erraldoi eta buruhandien kalejira. 11etan Obenerrekan, pilotako finalak. 12etan, txiki-txoentzat jolasak. 1etan La Merceden jubilatuentzako meza. 4.30etan Obenerrekako pilotalekuan beterranoen txapelketako finalak. 7.30etan harrijasotzaileak Mentu Plazan. 8.15etan "Solano Anaikin" trikitixa saioa. 11etan "Edelweiss" taldearekin dantzaldia.

PORTASOLEKO JAIAK
 10etan diana. 12etan zezenak. 3.25ean mus txapelketa. 4etan haurrentzako jokuak Gipuzkoa plazan. 6.10etan buruhandi eta erraldoiak. 7etan sokamuturra. 8etan soinu-joleekin poteoa. 9etan afari auzokoia. 12etan "Drakkar" taldearekin dantzaldia.

ANTZUOLAKO JAIAK
 Jaietako bigarren eguna. Besteak beste kontzertua Erriberako joteroak eta dantzaldia egongo da.

KONTZERTUA GAZTETXEAN
 "Hawi Madels" Berlineko taldearen kontzertua, Gaztetxean, 10etan.



JAIK NONAHI ASTEBURUAN

17 IGANDEA

ZINEA
 "Misterio en Manhattan" 5etan, 7.30etan eta 10etan.

SANTAMAINAKO JAIAK
 9.30etan goiz-eresia suziriekin. 10etan Makatzenako pistan futbito finalak. 12etan "La Merced" en Meza nagusia. 1ean Santa Teresako pistan futbito partidu. 4etan umeentzako jolasak Agerre Plazan. 5etan Santa Marina elkarrean rana txapelketa. 6etan erraldoi eta buruhandien kalejira. 7.30etan Gorritiren pottoka, basurde eta zezen txiki-ekin jaialdia, Agerre Plazan. 10etan "Boilongo" entzako Kaixo taldearekin dantzaldia. 12etan festa bukaera adierazten duen Traka.

PORTASOLEKO JAIAK
 10etan Meza Santua. 11.30etan haurrentzako margo lehiaketa. 4.15etan haurrentzako xake txapelketa. 8etan jai bukaerako txupinazoa.

ANTZUOLAKO JAIAK
 Jaietako azken eguna. Txirridulari lasteketa, Herri bazkaria, kirolari onenei omenaldia eta dantzaldia

18 ASTELEHENA**ZINEA**

"Misterio en Manhattan" 7etan eta 9.30etan.

ARGAZKI LEHIAKETA
"Gazteak naturan" V. argazki lehiaketa antolatu du Arrasateko Udaleko gazte zerbitzuak. Bi kategorია: 14-20 urte bitarteko gazteak eta 21-35 urte bitarteko edozein.

Gaia: "gazteak naturan". Bi modalitate; zuri-beltzean eta koloretan. Lanak aurkezteko epea urriaren 14an bukatuko da. Informazio gehiagotarako gazte zerbitzura jo edo 770065 zenbakira dei egin.

LANKIDETZA-BEKA

Arrasateko Udalak Udako Ingurugiro Eskolarako lankidetzabeka atera du. Deialdiaren oinarriak Arrasateko Udaleko hezkuntza sailean edo Udako Ingurugiro Eskolan har daitezke; eskabideak uztailaren 20a arte aurkeztuko dira.

**JAIK ARRASATEN**

Uztailaren 22an Maalako errabalean jaiak ospatuko dira eta 26an Ferrerías kalean.

19 ASTEARTEA**ZINEA**

"Misterio en Manhattan" 7etan eta 9.30etan.

**IGERITOKIKO ORDUTEGIA**


Irailaren 15a arte igeritokiko udako ordutegia: astelehenetik igandera, 9etatik 8etara. Beste instalazioak erabiltzeko ordutegiari dagokionez: astelehenetik ostiralera, 8.30etatik 9.30etara eta larunbata eta igandean 8.30etatik 8.30etara.

ESKULANEN ERAKUSKETA

Manuel Martinek kobrez egindako eskulanan erakusketa. Uztailaren 12tik 22ra Harresi aretoan. Ordutegia: egunero 6etatik 8etara, larunbat eta jaiegunetan 12etatik 2etara eta 6etatik 8etara.

20 ASTEAZKENA**21 OSTEKUNA****ZINEA**

"El ejército de las tinieblas" 10.30etan Monterongo parkean. Sarrera: 300 pta, gazte txartelarekin: 250.

**MIXEL GARIKOITZ PASTORALA**

Uztailaren 24ean Donaixti-Ibarre (behe Nafarroan) Mixel Garikoitz pertsonaiari buruzko pastorala. Bertara joateko autobusa goizeko 8etan Garibai geltokian. Txartelak uztailaren 22a baino lehen, AED edo Hire liburudendan eros ditzakezue. Prezioa: 1.000 pta.

FOLFLORE EMANALDIA

"El Salvador"eko dantza taldearen Dantza follore emanaldia, uztailaren 22an, gaueko 10.30etan Monterongo parkean. Sarrera: 500 pta. Eguraldi txarra eginez gero, Amaia Antzokian.

ERAKUSKETA

Famili eta Gizarte Heziketarako Zentruan "Altzari berrikuntza"ri buruzko erakusketa. Uztailaren 18tik 28ra Monteronen. Ordutegia: egunero 6etatik 8etara, larunbat eta jaiegunetan 12etatik 2etara eta 6etatik 8etara.

X. BASERRI SARIA

Euskara suzperu eta bertso-gintzari lagundu nahian, bertso-paper lehiaketa antolatu du Zarauzko Udalak. Bertso-paper bakoitzak, gutxienez zortzi bertso izan beharko ditu. Gaia librea. Lanak aurkezteko baldintzak: makinaz idatziak izatea, bi lerrore zuriz, lan bakoitzaren orijinala eta lau kopia, izengoitiz sinatuak izatea. Aurkezteko epea uztailaren 20a arte. Helbidea: Zarauzko Udala, Euskara zerbitzua, "Baserrisaria", 20.8000 Zarautz.

“Nire ustez, 53 urterekin pertsona bat gazteegia da atsedean hartzera dedikatzeko. Bestalde, atea “muturretan” itxi digutela sentitzea latzagoa izan daiteke 58 urterekin 65ekin baino, azken hori gizarteak hobeto onartzen du eta. Horregatik esaten dut behin eta berriz, zerbaitetan ekin beharra dagoela, eta egunero, euria ari badu ere bai. Zerbait hori geuk aukera dezakegu, eta egunean zenbat ordutan egingo dugun ere bai, baina egunerokoa eta, ahal bada, gure ingurunean izan dadila”.

Francisco Alvarezek

7U *lan* **hide**

“Mondragon Taldearen hasiera hasieratik izan da bertako enpresen antolakuntzan sindikatuek parte hartzearen kontrako jarrera. (...)

Gaur egun, sindikatuen lanari kooperatibetan leku egitearen alde irekitasunez hitzegiten duten langileek. (...) Egunean baino egunean gehiago dira sindikatuak sartzearen alde dauden langileak, baina ez dakite ondo ‘zela’, antolakuntzan, kontrolerako organuetan (Kontseilu Sozialetan) eta gestiokoetan (Kontseilu Errektorean) sartu. (...)

Azken egunotan pertsonala ‘errebertatzeko tamainan’ dago, Kongresuaren aurrean ‘Enplegua desnepleguaren aurka’ izeneko ponentziaren berri jakinik. Ponentziak neurri ‘inpresentableak proposatzen ditu, langileen eskubiderik oinarritzkoenen, bere maila profesionalaren, lanpostuaren eta lan baldintzen kontra egiten dute’. (...)

‘Arazodun sasoieta’ langile askok eskatzen diete sindikatuari, arazoak konpontzen laguntzeko kooperatibetan sar daitezela, analisi hauetan ageri denez. (...) Sindikatuen jarrera eredugarria eta errespetuzkoa izan da beti kooperatiben autonomiarekin. Ez dute barruko arazoetan parte hartu, eta ez dira sartuko. (...) Kooperatibetako langileen aldean geratu da pilota. Etorrizuna, sindikala edo ez, eurek erabaki behar dute”.

Simon Mz. de Arroiabek 94-7-7

egin

Zelan doa azoka eta aurrerantzean izango da aldaketarik?

Nire ustez azoka plaza ondo doa. Hilabete batzuk kaxkarragoak izaten dira baina beste batzuk hobeak, beraz, bataz beste hilero antzera fakturatzen dela esan daiteke. Azoka izaten den egunetan ere antzera gertatzen da. Batzuetan, ostiraletan erosle gehiago izaten da eta beste batzuetan zapatuetan. Baina azokan eguneko produktak eros daitezkeenez eta gainera prezio onean, jende asko erosketak egitera azokara hurbiltzen da.



Antxon Etxenautia
Azokako arduraduna

Maxi Eroski zabaldu zenean, ez genekien azokak zelan egingo zion aurre supermerkatu handi horri. Hasierako bi hila-beteak txarrak izan ziren baina ondoren betiko erosleak berriz ere azokara etorri ziren. Izan ere, denetik eskaintzen denez, supermerkatu handi bat bezalakoa da azoka.

Hala ere, eta gehiago indartu nahiez, zeozer egin nahi dugu aurrerantzean. Proposamen desberdinak ditugu mahai gainean baina oraindik ez dugu ezer erabaki. Batetik, baserritarrei euren produktuekin zapatuetan ere saltzera etor daitezela eskatzea. Bestetik, ostiraletan izaten den merkadilloa azokara ekartzea; baina asteen zehar saltzaileak beste toki batzuetara joaten direnez, aukera hori nahiko zaila ikusten da. Hirugarrenik, beste toki batzutan egiten den bezala, hilero azoka berezi bat egitea. Gutxigora behera Santo Tomasetan egiten den modukoa, baina hilero produktu jakin baten inguruan. Azkenik, hilero bi ostiralez estazio zaharrea egiten den baserritarren azoka hona ekartzekotan gabiltza eta batez ere hori egingo dela uste dugu. Ikusten denez, proposamen horien asmoa azokari beste bultzadaxo bat ematea da.

GOZOTEGIA
AKELARRE
Abuztuan ere zabalik
Goizez 9etatik - 2etara
Artisautzako Pastelgintza
Zarugalde, 54 ☎ 77 00 71 ARRASATE

YOSU HERMIK
VENTANAS AISLANTES
Kalitate gorena leihuetan
LANTEGIA ETA ERAKUSKETA:
Kataide Poligonoa, 4. Pabilioia. Tfnoa: 77 01 57 ARRASATE

Ikerlan espaziora

Ostiralean, Euskadin arratsaldeko 18:43ak zirenean, Floridako Cabo Cañaveraletik Columbia espazio-untzia abiatu zen espaziora. Untzi horretan eta Ramses proiektuaren barruan, Ikerlanek egin-dako kontrol aparailua joan zen, makinaren mandoen atala zuzenduko duen aparailua. Ramsesen helburua, grabitate falta erabiliz espazioan proteinak garatzea da. Esperimentua medikuntza arlorako oso garrantzitsua izan daiteke; minbizia tratatzeko botika garatzea da helburua.

Zinea Monterronen

Joan den ostegunean, zine emanaldiak hasi ziren Monterroneko parkean. "Acción Mutante" filmea izan zen emanaldia horiei hasiera eman ziena eta

**Umezaintzak eraikin berria**

Orain dela bi urte, Otik 3 urtera bitarteko haurrak Umezaintzako eraikin berria erabiltzen hasi ziren arren, ofizialki zapatuan inauguratu zen eraikina. Baimena lortzeko hainbat gorabehera izan direlako gertatu da inaugurazioaren atzerapena. Beraz, hemendik aurrera urte batetik sei urtertereko umeak eraikin berean izango dira. Edifizio berria 175 milioi kostatzen da.

gaugiro ona zegoenez, jende ugari hurbildu zen Monterronera. Hori bai, batzuen esanetan, pantaila txiki geratzen da.

Gurutze Gorria

Deba Garaiko Gurutze Gorriak, ekainean egindako ekintzen berri eman du. Arrasateri dagokionez, 4

kirol istriputan, etxeko 5 istriputan, 15 trafikoko istriputan eta bestelako 16 istriputan parte hartu dute. Gainera, 10 zerbitzu berezitan ere izan dira.

JAIOTZAK

• Ibon Carmona Iñurrategi. Ekainaren 27an.

EZKONTZAK

• Roberto Gonzalez Ceballos & M. Angeles Peña Moreno. Uztailaren 2an.
• Ignacio Belategi Azpiri & Nerea Askasibar Bolinaga. Uztailaren 7an.
• Andoni Zurbano Landa & Edurne Amaia Leibar Balzategi. Uztailaren 9an.

HILDAKOAK

• Luis Luis Siso. Uztailaren 2an.
• Jose Onaindia Belastegi. Uztailaren 7an.
• M. Consolación Ambrosio Rodriguez. Uztailaren 9an.
• Maria Catalina Asensio Lozano. Uztailaren 9an.
• Fidela Gisasola Alkorta. Uztailaren 8an.
• Antonio Zubizarreta Urzelai. Uztailaren 8an

"Gazteak naturan"

U. Argazki Lehiaketa

2 Kategoriak

a) Deba Garaiko 14-20 urte bitartekoak
b) 21-35 urte bitarteko edozein

Sariak

a) kategorian:
1. 20.000 pta.
2. 15.000 pta

b) kategorian:

* Txuribeltzean:

1: 50.000 pta
2: 35.000 pta


* Koloretan

1: 50.000 pta
2: 35.000 pta



Lanak aurkezteko epea:
Urriak 14





MIKEL OLABE *

Autopistaren txanponekin Deba erreka berreskuratu

Gure ibaien egoera azaltzeko, beraien ertzetatik paseotxo bat eman ondoren bururatzeko zaiguna argitaratzea nahiko delakoan gaudete, baina, katastrofistak garelako esan ez dezaten, Aranzadik egindako ikerketak lana aipatuko dugu.

Bertan dioenez: "Gatzaga inguruan Deba erreka-egoera oso ona da satsadura organiko nahiz ezorganikoa oso baxua delarik, leku hartako ur garden eta oxigenatuak, flora eta fauna komunitate konplexuak faboratzen dituzte. Gatzagatik industrietako isurkinen (material organiko, sulfuru, deskonpasatzen doazen arraba...) eraginatik erreka itxura guztiz negargarria hartzen du. Ura, guztiz uhertua dator hidrokarburoen lohidura ertzetan ikusten delarik. Eskoriatzatik aurrera, Deba arroaren egoera: Aretxabaleta, Arrasate, Oñati, Bergara, Elgoibar, Mendaro eta Eibarko isurkinen ondorioz, txartzten da.

Debaren egoera horrelakoa bada, errekarrena ez da hobe: "Aramaiorek erreka nahiko egoera onean aurkitzen da Gesalibar auzoraino, ezkaile eta amurrainak

aurkitu daitezkelarik; hemendik aurrera gauzak okertzerako doaz psikiatriko, Fagor eta beste industri batzuen hondakinak direla eta(...)

Deba erreka moeta bietako satsadura jasaten du, bata hiriguneetako isurkinetik ezartzen diotena, eta bestea berriz, izugarritzako kutsadura sortzen duten industria produktu toxiko, metale, zianuro eta abarrek sortzen diotena. Bi moeta honetako isurkinen nahasketak gure erreka ondotorio larriagoak dakartzate, eta horrela Deba arroa Gipuzkoatik kutsatua bilakatzen da.

Deskribatzen dugun

"Hurrengo legealdirako 'txixerrekak' berreskuratzea planteatuko ote diguten beldur gara"

egoera, hau den bitartean, inork ez du konponbiderik proposatzen. Alderdiak ibaien egoeraz Udal hauteskundeetatik honantz ez dute hitzik ere egin. Dirurik ez dagoela diote, orain dela lau urte errekadartxo batzuk berreskuratzea planteatu zuten, eta, ezer ere ez dute egin. Hurrengo legealdirako "txixerrekak" berreskuratzea planteatuko ote diguten beldur gara.

Bitartean, ibaiak han eta hemen kanaleratzen jarraitzen dute bertako ekosistemak hilzorian jarritik. Dirurik ez dago, baina gure bailararako izugarritzako diru pila kostatzen diren lan-erretardioak proposatzen dituzte. Abiadura handiko trenaren proiektua eta autopistarena kostatzen direnarekin gure erreka berreskuratze integral proiektu bat eskura daiteke. Baina interesak interesak dira, eta bizi-kalitatea agintarien arduetatik urrun geratzen dela pentsa daiteke.

Irtenbide arrazional batek horrelako neurriak proposatu beharko lituzke:

- Berreskuratze plan integral bat errekarretatik (Aramaiorek, Oñati erreka...) hasiz proiektatu. Epe motzeko helburua erreka denak egoera naturalera bideratzea izango litzateke.

- Etxetako isurkinetatik kolektore eta depuradorak eraikiz, erreka ekosistemak berripitzea plan integral horren helburuen artean egon beharko litzateke.

- Lantokietako isurkinak mozteko neurriak bideratzea. Instituzioak bertako zuzendariekin harremanetan jarri beharko lirateke, kutsadurarik arriksutsuena eragiten duten sustantziak desagertzeko neurriak hartzea behartuz. Lantokiei urteroko ingurugiro-auditoriak exigitu beharko litzaizkieke.

Dirua nondik atera bada, gogo, baita zer egin ere. Berrondate edo gogoia falta ote?

* (EKI)

USTEAK USTE

ABUZZUA ARRASATEN
Uztailaren erdialde honetan gaudela, hasiak dira abuztuko oporraldiaren inguruko esamesak: krisialdi honen eraginez aurten Arrasate ez dela urteroko basamortua izango, jendea bertan galdituz egunerako irteeratan ibiliko dela bueltatuta, ... ikusi behar. Azken urteotan sarritan entzun izan dudana leloa da hori, baina azkenean betetzen ez denaren susmoa daukat, izan ere, herriak ospa egiteko aitzakirik txikiena ere aprobetxatzen baitugu.

Hala ere ez omen da plan txarra eguna hortik zehar eman eta gaua aldera Mondragoe lasaiago batera bueltatzea, gau parteko freskuraz gozatzera. Harritzekoa litzateke Estatua bisitatuko omen duten sei milioi atzeritarretako hainbaterako abuztuko basamortu hau alaituko balute; hori nekez gertatuko den arren, abuzturako behintzat, kanpotarrak erakartzeko ahaleginetan aritu barik, han hemenka arrasatearren koloniak sortzeruntz abiatu beharko ginateke, herri honen izen eta nortasuna hedatuaz.

JON GARAI

BASABE JATETXEA

Menu eta afariak
Boda eta banketeak

Tfnoa: 79 91 84

ARETXABALETAK

TTUKUN

Fotokopiak
Enkuadernazioak
Koloretan fotokopiak
Planoen erreproduktzioak
Offseta

Ferrerias, 23 ARRASATE
Tfnoa: 79 46 62


ARGI PLASTIC

• PVC eta Aluminioan egindako leihoak, atek, manparak...
• Lantegitik zure etxera zuzenean

**Eska ezazu aurrekontua
konprometzu barik**



Tailerra eta Bulegoa: Axeri, 3 Tfnoak: 77 11 30



Dagoeneko probak egiten eta instalazioa montatzen hasi dira.

Fluorra izango du datorren urtetik aurrera edango dugun urak

Urkuluko urari fluor-a botako diote datorren urtetik aurrera. Hilabete hauetan zehar, urte bukaera arte, aprobak egingo dituzte baina instalazioa bukatu bezain laster eta Osakidetzak baimena eman ostean, ura fluoratzen hasiko dira.

Orain dela lau urte Eusko Jaurlaritzak lege bat atera zuen. Lege horren arabera, 30.000 pertsona baino gehiagoren artean ura banatzen duten urtegiatiko ura fluora-tu egin behar da. Fluorra erabiltzen hasteko montatu behar den instalakuntzaren kostua handia delako ezarri zuten muga hori. Urkuluko urtegitik ura 70.000 pertsonak jasotzen dutenez, Urkulun ere fluorra botatzeko instalakuntza jartzen hasi dira.

Hortzetako kariesa eragozten duelako erabiltzen da fluorra. Euskal Autonomi Elkartean karies kasu asko izaten denez, fluorra erabiltzen hasi ziren zenbait lekutan. Lehenengo aldiz Gasteizko etxeetan hasi ziren ur fluoratua jasotzen eta ostean, Donostiakoetan. Osakidetzako arduradunen esanetan, Gasteizko dentistek gero eta karies gutxiago dagoela antzeman dute.

IRITZI KONTRAJARRIAK

Fluorak osasunean sortzen dituen ondorioen inguruan iritzi desberdinak daude. Deba Garaiko EKI taldearen esanetan, kalte ugari eragiten du fluorak: min erreumatikoak, sabel eta giharretako minak, egonezina, azalaren aldaketak, gibetako lesioak eta gizentasuna. Talde ekologistaren ustez, fluorra produktu toxikoa eta arriskutsua da; horregatik, kariesaren konponbidea beste bide batzuetatik zuzendu beharko litzatekela esaten dute.

Fede Simón, Haginetako Zerbitzu Komunitarioko zuzendariak adierazi digunez, "urak berez fluorra dauka baina leku batzuetako urek behar baino gutxiago dute, horregatik kloroa botatzen den moduan fluorra ere bota egin behar zaio." Sendagilearen ustez, osagai hori erabiltzen duten herrialde aurreratuetan konprobatu denez, fluoraren erabilerak kariesen gutxitze nabarmena ekartzen du eta ez du bestelako kalterik eragiten". Gainera, Urkuluko urari oso fluor gutxi botako diotenez, ondorio txarrik sortzea ezinezkoa dela ziurtatu digu.

Europistasen erantzuna

Europistasek Arrasateko seinalizazioari buruzko iritzia bidali du. Ibai Arte merkatarien elkartearen ekimenez, autopistetako irteeretan Arrasate izena gehiagotan agertzeko eskaria egin zuen Arrasateko Udalak. Arrasateri buruzko seinalizazioa nahiko aldiz azaltzen dela adierazi dio Udolari Europistasek. Nahiz eta eskaria hutsean geratu, Europistasek seinale berriak jartzekoan eskari hori kontutan izango dela espero da.

Tarifa aldaketa

Lau Bide aparkalekuaren tarifa aldatzea eztabaidatu zen asteleheneko gobernu batzordean baina azkenean, ordaindu beharreko diru kopurua ez aldatzea eta dagoenetan uztea erabaki zen. Beraz, hemendik aurrera ere orduko 50 pta. ordaindu beharko dira.

Bidea egokitu

Monterron jauregitik San Kristobal ermitara oinez joateko dagoen bidea egokitu egingo da. San Kristobalera igoteko goi aldea txarto dagoenez, LKSri proiektu bat erredaktatzeko eskatuko dio Udalak. Asmoa, Monterron parkean ahal den eta aldaketa gutxien eginda bide hori egokitzea da.

Umeentzako moda

Ferrerias Kalea, 34
ARRASATE
Tfnoa: 79 97 86

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte
eta ostiral
5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99

FELIPE MADINA

ZURAK

Zarugalde, 40 ARRASATE
Tfnoa: 79 13 78



Uholdeek eragiten dituzten ondorioak gutxitu egin nahi dira.

Deba ibaia garbitzen ari direnak Arrasateko zatiari ekin diote

Aste honetan Arrasateko Deba ibaia- ren zatia garbitzen hasi da langile talde bat. Eusko Jaurlaritzaren ekimenez, EAE-ko ibaiak garbitzen ari dira zenbait langile eta Arrasaten zehazki zortzi dira "Eulen" enpresak kontratatuta zeregin hori egiten ari direnak. Lan talde horrek martxoan ekin zion Eskoriatzako zatia garbitzeari eta orain dela aste bat Aretxabaletako zatia bukatu dute. Batzbestek 75 metro garbitzen dute egunero eta arduradunek esan digutenez, Deba Ibaia da Euskadi osoan gehien kostatzen ari dena.

Ibaiak garbiketa behar duelako eta era horretan uholdeek eragiten dituzten ondorioak gutxitu egiten direlako hasi dira

zaborrak erretiratzeko. Horregatik, erreketako zaborrak jasotzeaz gain, adar, sasi eta enborrak ere kentzen dituzte. Aretxabaletako zatian zehazki 23'5 tonelada zabor-poltsa batu dute.

BIZIKLETA MARTXA

Deba Ibaiaren berreskuratzea esgitzeko, berriz, datorren domekarako Mendia Bizirik, Amilotx, Eguzki eta Eki talde ekologistek bizikleta martxa antolatu dute. Aurtengo martxan gainera, Deba erreka berreskuratzeke plana egin dezatela eskatuko zaie EAEko instituzioei. Martxak, goizeko 9.30etan irtengo du Aretxabaletatik eta Arrasatek 10ak aldera.

San Frantziskoko etxeak bota

Uztaila amaieratik aurrera hasiko dira San Frantzisko kaleko 6,8,12 eta 14 zenbakidun etxeak botatzen, Udalak baimena eman ondoren. Lur sail horietan Uherkapen eraikitzen hasitako etxebizitza multzoaren jarraipena egingo da, guztira 110 etxe. Dagoeneko bizilagunak hasiak dira irteten, eta bi edo hiru urte barru berriz bertan izango duten etxe berriaren zain, kaleko etxeetara alde egingo dute, Irgala eraikitzailearekin negoziatu eta adostasuna lortu ondoren.

Udal Plenoa

Udal plenoa zen ospatzekoa ostegun honetan. Besteak beste honako gai hauek ziren erabakitzekeak pleno horretan: zeharkale estalian dagoen solairuan dagoen etxebizitza erosteko proposamena, zenbait lursaila erostea eta Osakidetxari ospitaleko parking-a saltzea, eraikin berri bat egin dezan.

LARUNBATETAN ERE BAI



CIM

HIZKUNTZAK-IDIOMAS

94 - 95 IKASTURTEA

Matrikula zabalik

INGELESA

ALEMANA

FRANTSESA

AHIZKE S.COOP
Araba Etorbidea, 4 20500 ARRASATE Tfnoa: 79 03 12

AHIZKE S.COOP
Olakua, 14 20560 OÑATI Tfnoa: 71 60 00



V. Kongresuaren bigarren zatia egingo da martxoaren baino lehen.

Kooperatiben lege berria eta langabezia V. Kongresuko ardatzak

Hilaren 21ean, V. Kongresu kooperatiboaren egingo da. V Kongresua garrantzitsua izango da aurten indarrean sartu den Kooperatiben legearen ondorioz, zenbait estatutu aldatu egin beharko baitira. Lege horren arabera, aldizkako bazkideak izendatzeko aukera eta asanblea orokorraren eta kontseilu errektorearen gaitasunak moldatzea proposatuko dira. Horretaz gain, langabezia ere eztabaidagai izango da. Langabeziari aurre egiteko zuzentzen den diru kopurua gehiegizkoa dela ikusirik, kooperatibek lanpostu errentagarri eta kompetitiboak sortzea jarri nahi dute helburutzat. Horregatik ekintza enpresarial berriak sortzeko, Korporazioak 2.200 milioi banatuko ditu kooperatiba desberdi-

nen artean.

Baina aipagarriena, kongresuan parte hartzen duten ordezkarien kopurua eztabaidatuko dela izango da. Egun, 350 ordezkari dute kongresuan izateko aukera baina V. Kongresuan kopuru hori 370era gehitzea eztabaidatuko da. Kopuru handitze hori hala ere ez da nahikoa Fagor taldearen barruan debatea sortzeko eratu den "Lankideak" taldearentzat. Talde horren esanetan, gehiengoak kongresuan parte hartzeko aukera izan dezan, 25 bazkideko ordezkari bana izendatu beharko liriteke, guztira 700 ordezkari inguru. Talde horren proposamena eztabaidatzeko, datorren urteko martxoaren baino lehen V. Kongresuaren bigarren zatia egingo da.

Mankomunitatearen ardura berriak

Seguruena hemendik aurrera, IGOKA (iharduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuak) izeneko espedienteak Mankomunitateak tramitatuko ditu. Arrasateko udalari behintzat, ondo iruditu zaio espediente horiek tramitzatzeko gaitasuna Mankomunitateari ematea. Orain, Deba Garaiko Mankomunitatea osotzen du gainontzeko udalek ere euren iritzia eman betenharko dute. IGOKA espedienteen bidez, komertzioak, enpresak eta tabernak zabaltzeko eskariak tramitatu dira. Hain zuzen ere, Diputazioak edo Jaurlaritzak erabakitzen dute erregelamendua kontutan izanda, eskari horiei baimena ematea ala ez ematea. Baina normalean erabakiaren erantzuna jasotzeko denbora asko behar izaten denez, gehienetan hiru hilabete, Mankomunitateak tramitateak bizkortu asmoz, ardura hori hartu nahi du.

**ARRASATE
HOTELA**



Biteri, 1 Tfnoa: 79 14 16

UGARTE

Industri
hornidurak

Arrasate pasealekua
Tfnoa: 79 83 96 / 79 23 00
Telefax: 793412



LORATEGI

Iturriotz, 7


ARRASATE

Tfnoa: 79 04 67


**UGARAN
jatetxea**



Victor Altubek, Sebero Altube idazle famatuaren anaia ren semeak bisitatu gintuen joan zen astean. Victor Argentinan jaio zen eta tenorea da. Argentinan bizi diren Altubetarrak musikarekin oso lotuta daude eta esaterako, Victorren anaia, Sebero Altube izenekoa hura ere, pianojolea da. Victorren ametsa anaia eta biak Arrasatera kontzertu bat ematera etortzea da.



M^a Luisa San Jose eta **Jose Antonio Bañoles** izan dira Maxi-Eroski-ren 25. urteurrena dela eta zozketatutako kotxearen irabazleak. Kotxea Ford Fiesta da eta ostiralean jaso zuen bikoteak Eroskiko eta Mugarriko arduradunen eskutik. M^a Luisak eta Jose Antoniok ez dute gidatzeko karnetik, beraz, hemendik aurrera, nahikoa lan izango dute karneta ateratzen.



Ana Azkarraga arrasatearra eta bertan bizi izango dira aurrerantzean. Ana Londresen eskoziarra uztailaren 16an bizi izan zen 5 urtez eta azken ezkonduko dira Arantzazun. 4 urteak ere Eskozian pasa Eskozian ezagutu zuten elkar ditu. Zorionak bio!


HIES EKIMENA

Astelehen, astearte eta ostiral
Setatik 8etara
Tfnoa: 79 26 99

IBARRA
Garajea S.L.



Garajea
Automobil-konponketa
Garabi zerbitzua



Salmenta eta zerbitzua

IBABE
GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA
Gesalibar auzoa, z/g. Tfnoa: 79 99 61 ARRASATE



**Txatxilipurdik anto- ralean Herriko plazan. entzun eta zezenek
latutako udalekuetan Entzierroan ume guz- irten zuten. Gezur-
bildutako ehundaka tiak erropa zuriz eta rezko zezenak izan zi-
neska-mutikok, San zapi eta gerriko gorriz ren arren, kalean gora
Fermin eguneko ohitu- jantzita azaldu ziren. eta kalean behera
rari jarraituz, entzie- San Fermin kantua primeran ibili ziren
roa egin zuten osti- abestu, txupinazoa umeak.**

TOUR 94

Arrasateko txirrindulari taldeak antolatu duen "Tour-eko porrak" prebisio guztiak gainditu ditu. 368 zerrenda egin dira eta batutako dirua 1.840.000 pta izan dira. Sekula ez da horrenbeste diru jaso, diruari eta izena eman duen jendeari dagokionez errekorra izan da aurtengoa. Errekor hori ondo igarriko duena porrako irabazlea izango da, ia miloi bat jasoko du eta sarizat.



IZEN PROPIOAK

● **Julen Busturia**, 48 urte, bilbotarra izendatu dute Fagor Automatioko gerente. Julen ekonomian lizentziatua da eta orain arte Fagor Automatioko komertzial zuzendaria izan da.

● **Igor Arenazak**, 20 urteko atxabaltarrak Eibar futbol taldean jokatu du datorren denboraldian. Aurretik Atleticen ibilitakoa da, 3 urtez jubenetan jokatu zuen eta urtebetez Bilbao Atleticen. Igor Euskal filologia ikasten ari da Bilbon.

● **Jose Miguel Elizburu** 18 urteko atxabaltarra, erloju kontrako modalitatean Gipuzkoako txapelduna dugu. Igandean El Diario Vascok babesten duen lasterketa irabaztean lortu zuen Gipuzkoako txirrindulari azkarrena izatea.

*Mendi
taberna*

MENDI DA ZURE ETXEA

Maialako Arrabala, 4
Tfnoa: 79 20 54

comercial
san juan

Garibai, 12
Tfnoa: 79 13 05

hikein
MARKO-JARTZEAK

Zerkaosteta, 4
Tfnoa: 79 13 84

**FELIPE
MADINA**

ZURAK

Zarugalde, 40 ARRASATE
Tfnoa: 79 13 78

Laintz: etxe zaharrak berritzen

**Juan Barrera arkitek-
tuak eta Marian Beitia
interioristak, Saiolanen
ernetako ideia baten
ondoren, eraikinen za-
harberritzean dihardu-
te lanean. Laintz izene-
ko enpresa sortu dute
horretarako, eta hasie-
rako lanak batez ere
administrazioarentzat
egin badituzte ere, par-
tikularrei zer eskainirik
badutela uste dute. En-
presa ideia bat erreali-
tate egin duten gazte
bi dira.**



—Zelan izan zen enpresa
bihurtu arteko prozesua?

—1990eko irailean hasi
ginen Saiolanen, bideraga-
rritasun proiektua lantzen.
Bi urtean egon ginen, eskai-
ni nahi genituen zerbitzuak
diseinatzen. Eraikinen e-
rrestaurazioari buruzko
masterra eta bestelako ikas-
taroak egin eta lan egin ge-
nezakeen arloa konkretatuz
joan ginen. 92ko otsailean
eratu genuen enpresa.

— Zer zerbitzu eskaini-
zen duzue?

— Esparrua zabalduaz
goaz, aurrera egin ahala.
Etxearen jabearen beharren
arabera, gure aholkua eman
eta irtenbideak eskaintzea
da egiten duguna. Gero obra
egin beharko du, eta horre-
tarako behar diren gremioak
eskainiko dizkiogu eta obra-
ren gestioa esaten diogu
horri. Lehen urratsa etxe-
aren jabeak hobekuntzaren

bat egin nahi izatea da, eta
egin nahi duen gauza kon-
kretu hori harturik, etxearen
erosotasuna hobetzea da
gure helburua, bere gogoia
errespetatuz formarik onena
emateko bitartekoak jartzen
ditugu.

— Norentzat egiten du-
zue lan?

— Orain arte adminis-
trazioarekin egin izan dugu
lan, baina aurrerantzean
partikularren beharrei begi-
ra egon nahi dugu gehiago.
Partikularren beharrak
ezberdinak izaten dira, eta
anitzak eta konkretuak ere
bai: leiho bat aldatzetik hasi
eta eraikin guztia berritze-
rainokoak. Eta arazo txiki
horiek ere konpondu nahi
dizkiegu, profesional ego-
kiak aurkitu eta arazo pun-
tualak konpontzea, adibi-
dez.

Zaharberritzean oso
inportantea da gremio bere-
zietekin lan egitea, hau da,

era honetako lanetan espe-
zializatuta edo ohituta dau-
den langileak aukeratzea,
gauza batzuk era berezian
tratatu behar dira.

— Berritze obrei dagokie-
nez, zer araudi dago?

— Mankomunitate mai-
lan Suradesa daukagu, ges-
tio horretaz arduratzen den
elkartea, urte batzuk lanean
daramatzana eta zaharberri-
tzeari dagozkion plan guz-
tiak bultzatzen dituena.
Gero herri bakoitzean gure
Mankomunitatean onartuta
dago Rehabilitazioko Plan
Berezia eta hori da Autono-
mi Elkarteko gainerako
herriekiko dugun abantaila.
Plan horretan diseinua egina
dago. Araudia, zorrotza bai-
no gehiago protekzionista
da. Orain zehaztu egiten da
zeintzuk diren gorde behar-
reko eraikinak, bakoitzean
zer egin daitekeen, etxearen
izaeraren arabera muga
gehiago edo gutxiago izan-

go da, bai kanpoko estetika-
ri dagokionez, eta baita
barruko ezaugarriei begira
ere. Laguntzatan ere, zenbat
eta lehengo izaerari gehiago
eutsi, orduan eta laguntza
gehiago izaten da.

— Eta jendeak jakiten
ditu horrelako gauzak?

— Normalean alderan-
tzi izaten da. Lehenik obra
beharra ikusten du jabeak
eta konponketak egitea era-
bakitzean hasten dira infor-
mazio eske, baina hasiera
baten erabiltzaileak ez du
informazio gehiegirik izate-
ten. Guk ere alde horretatik
informazioa emateko ahale-
gina egiten dugu, ez kon-
ponketarik egokiena zein
den, baita izan dezakeen
laguntzen gainean ere.

Gainera, jendea gero eta
kontzientziatuago dago etxe
zaharretan gorde beharreko
gauzen garrantziaz eta gaur
egun dauden plan eta
laguntzekin gero eta gehia-
go jotzen da zaharberritu
eta lehengo itxurari eustera;
jendeak estimatu egiten du
etxe zaharren balioa. Eta
Euskal Herria gai honetan
ere beste komunitateen
aurretik doa, Europaren
aldean atzetik goazen arren.
Jendearen pentsatzeko era
aldatuz doa, administrazio-
ak ere bultzatzen duen neu-
rrian.

Hala ere, oraindik jende
gehienak nahiago izaten du
etxe berri bat, zahar berritu
bat baino eta hori esangu-
ratsua da; berritu batek gaur
egun berri berri baten bal-
dintzak bete ditzake, eta
hori ulertaraztea da gure
helburua.

● **“Etxe berritu batek berriaren baldintza
berberak izaten ditu”**

Cerrajera eta Transformados Ametsa egia bihurtuz

Astelehenean, Cerrajera eta Transformados lantegietako arazoan murgilduta dauden sindikatuei, idatzi bat bidali zien bi lantegi horien jabeak, UCEM Korporazioak. Idatzi horretan esaten denez, Korporazioak onartzen du enpresetako akzioak prezio sinbolikoan saltzea (akzioko pezetan) eta bi enpresa horietako lurzoria eta ofizina langileen esku uztea. Hala ere, nahiz eta hasierako lerroek hori baieztu, idatzian zehar argi ez dauden beste gauza batzuk aipatzen dira. Horregatik, sindikatuetak arduradunek "oraindik kanpairik ezin dela jo" esaten dute. CC.OOko Juan R. Garaik eta ELAko Julian Balanzategik argitu digute, idatzi horrek zer esan nahi duen.

- Zer dio idatziak?

J.R. Garaik: Idatziak esaten du ekainaren 22an Eusko Jaurlaritzan, Diputazio, Korporazio, Gizarte segurantzaren, Hazienda eta sindikatuon artean egin genuen batzarrean planteatu genituen eskariak onartu egiten dituela Korporazioak. Beraz, akzioak saltzea eta patrimonioa uztea onartzen dela. Baina horretaz gain, batzarrean izan ziren erakundeekin Korporazioa bilerak egiten ari dela aipatzen da. Zerrajera eta Transformadosetako zorrek zein geratu behar den eztabaidatzen ibiliko direla uste dugu. Korporazioak zorra guri pasa nahi digu baina zorra guri utzi ezkeroguk ezin izango dugu aurrera egin. Gainera, zorra Korporazioarena da.

J. Balanzategi: Oraindik gauza asko argitu behar da. Goiz da garaipen handia lortu dugula esateko. Gaietik zeozer aipatu da, baina idatzi hori zehaztu egin behar da.

- Espero zenuten horrelako erantzunik?

B: Harritu egin gintuen eskutitzak; egia esan ez genuen horrelakorik espero. Abenduan ere gauza bera eskatu genien eta ezetza eman ziguten. Denbora tarte honetan udaletxeak eta administrazioak presionatu egin dute eta horrek asko lagundu du.

G: Bai, horien laguntza garrantzitsua izan da baina finean, langileak izan dira udaletxe eta administrazioari presionatu diotenak.

B: Eta jakina, LKSren ikerketak ere garrantzia handia izan du.


- Idatzi horren ostean zer dator?

B: Oraindik ez dakigu noiz, baina laster beste batzar bat izango dugu. Seguruenik, batzar horretara Korporazioa baldintzekin joango da. Beraz, oraingoz ez dugu kanpairik joko. Pausu handia eman da, pentsa daiteke aurrera jotzeko patrimonioa dugula, baina egoera zaila da oraindik.

G: Egoera oraindik zaila dela bistan dago, horregatik, kontzentrazioekin jarraitu beharra dago.

- Etorkizuna ez da erraza izango.

B: Ez, ez da erraza izango. Gure helburua lanpostu guztiak mantentzea da, bai-



Juan Ramon Garaik. CC.OO.

na LKSren ikerketan ere azaltzen da langile batzuk soberan daudela, denontzako lanik ez dago. Beharbada langile batzuk nahiago izango dute dirua hartu eta lantegia uztea, beste batzuk, berriz, ez.

G: Kontua da LKSren txostenaren bigarren eta hirugarren zatia oraindik egin gabe daudela. Orain, zein merkatutarako eta zer produzitu dezakegun ikertu behar dugu. Horregatik, garrantzitsua da LKSren ikerketak aurrera jarraitzea.

- Lantegien zuzendaritza zeinen esku geratuko litzateke?

G: Enpresak zuzentzeko enpresario eta gestoreak

aurkitzea formula ona litzateke baina, jakina, langileek izango lukete kontrola. Beste formula bat, S.A.L. sortzea izango litzateke baina hori nahiko zaila izaten da.

- Tirabira guzti honetan, zein izan da sindikatuen akatsa?

G: Nire ustez denbora asko galdu dugu. Lehenago presionatu behar genuen, Arrasate eta Bergarako lantegiak banatu zituztenean. Baina garbi geratu da, sindikatuen arteko kontsentsua beharrezkoa dela.

B: Urtetan Korporazioa gezurretan ibili da eta zaila izan da sindikatuontzat gezurretan zebilela jendeari sinisteraztea.



Julian Balanzategi.ELA.



Urtebetez ez da viatorrarik izango Arrasaten.

Komunitate Viatoristak urtebetez desagertuko dira

Datorren ikasturtean ez da Viatorista komunitaterik egongo Arrasaten. Jende askok beti-rako doazela uste duenez, Viatoristek garbi utzi nahi izan dute ez dela horrela izango. Dena dela, urtebeteko desagerpen honen kulparen gainean iritzi desberdinak dauka Viatoristen artean.

Viatoristek 56 urte daramatate Arrasaten heziketa lanetan, 1938ko martxoaren 3tik hain zuzen. Historia oso luzea da gaur egungo San Viator ikastolak duena, Viatoristen presentzia beti tartean izan delarik. Orain, aurrerago jorratuko ditugun zirkunstantzia batzuen ondorioz, Arrasateko Viatoristen bi komunitateak desagertzera doaz urtebetez. Dena dela, desagerpen horren arrazoiaren gainean, iritzi desberdinak daude erlijiosoen artean.

AITA QUERBES ETA SAN VIATORREKO KOMUNITATEAK

Egun, bi komunitate Viatorista daude Arrasaten: bata Aita Querbes komunitatea da, bost Viatoristak osatzen dutena: Koldo Rodriguez, Ion Ancin, Mikel Pinela, Jose Luis Rubio eta Julen Gonzalezek. Bigarren komunitatea San Viator ikastolan bertan bizi da eta Goio Eskibel, Cosme Salazar, Tomas Aranberri eta Juan Tomas Etxaburuk osatzen dute. Erlijioso hauetaz gain, hainbat asoziatuk ere komunitatean parte hartzen dute: asoziatuak ez dira Viatoristekin bizi baina eurekin konpartitzen dute kristau bizitza.

VIATORISTEN ARTEKO IRITZI DESBERDINAK

Koldo Rodriguezek dioenez, oso atzera begiratu behar da Viatoristen lana zein izan den jakiteko. Viatoristak 1938an Arrasatera

etorri zirenean, herrian ez zegoen funtzio bat betetzera etorri ziren, Arrasateko gaztediaren goi-mailako hezikuntza hain zuzen. Lan horri ekin eta egoitza propioa izatera heldu ziren: "Garai hartan egoitzaren jabetza, titularitatea eta zuzendaritza akademikoa Viatoristen esku zegoen. Pixkanaka-pixkanaka, eta guk horrela gerta zedila nahi izan genuelako, 2. mailara pasa eta protagonismoa galtzen joan gara: Titularitate akademikoa kongregaziotik kooperatibara pasa zen, baita 1965ean egoitzaren erabilpenaren eskubidea ere, eta azkenean, ikastolaren zuzendaritza bera ere bai. Hasieratik, garbi izan genuen ikastola herriarentzat sortutako gauza bat zela. Herriak bere kabuz eskola antolatzea lortu duenez, gure lana bukatu da, eginbeharrekoa egin dugu eta behar gaituzten leku batera aldegitia erabaki du gure

komunitateak. Dena dela, erabaki honen gainean iritzi desberdinak egon dira Viatoristen artean." dio Koldo Rodriguezek.

Goio Eskibel, San Viatorren bizi den komunitateko apaiza da. Bere iritzia oso bestelakoa da: "Nire uste,

A

rrasaten egin behar genuen lana egin dugu: orain beste leku batean behar gaituzte."



Emilio Monasterio, Jose Angel Arregi, Goio Eskibel, Koldo Rodriguez, Juan Derteano (Txintxu) eta Jose Luis Rubio Viatoristak Santiagon.

Viatoristok Arrasaten lan handia daukagu oraindik. Galdera bat egin genion geure buruari: Viatoristok badugu hemen zereginik ala ez? Bi postura daude: bailara honetako gazteek euren bizitzaren zentzua ez dutela garbi ikusten uste dugu gure komunitatekook, balore erlijiosoak galdu egin dituztela alegia, eta hori berpiztu egin behar da. Hori egiteko nortzuk dira egokienak? Erlijiosoak. Beraz, gure ustez, lan handia daukagu oraindik egiteko. Beste komunitatekoek beste postura bat hartu dute eta hori ere oso errespetagarria da”.

VIATORISMOA DESAGERTZEAR?

Koldo Rodriguezen ustez, gauzak dauden moduan ikusita, Viatorismoa ikastolatik desagertzeko aukera asko dago: “Ez litzateke bapateko gauza

izango baina denborarekin gerta daiteke.”

Goioek ez du gauza bera uste: “Ez dut uste. Ikastolako kontseilu errektoreak hartu duen erabaki garrantzitsuenetarikoa bat, planteatu duzun arazo honi buruz

B

**ailarako gazte-
ek balore
erlijiosoak
galdu egin
dituzte eta hori
berpiztu egin
behar da.”**

erreflexio sakona egitea izan da, eta horrek, ikastola honek oraindik balore erlijiosoak lantzen dituela esan nahi du.”

Kontuak kontu, Viatoristen Kongregazio Probintzialak emandako berrien arabera, San Viatorreko komunitatea urte batez desagertu egingo da. Ez omen diote bideragarritasun handirik ikusten eta gainera, erabaki honi beste zirkunstantzia pertsonal batzuk gehitu zaizkio: Juan Bautista Etxaburu, gaixotasunaren ostean jubilatua egin da eta Valladoliden geratuko da bizi izaten; Cosme Salazarrek euskal filologiako ikasketak bukatu berri ditu eta Gasteizko San Viator ikastetxera bidali dute; Goio Eskibeli, “urte sabatikoan” tokatzen zaio aurten, hau da, urtebetez bere formazioa sakontzeko nahi duen lekura joateko aukera du eta Madrilera joango da; Tomas Aranberri azkenik, urtebeterako soilik etorri zen Arrasatera.

Kasualitate hutsa izan da bi komunitateen desagertena batera gertatzea. Bata aspalditik zegoen pentsatuta baina San Viatorrekoarena bapateko berria izan da. Herriak, Viatoristak Arrasatetik desagertzera doazela uste du eta hori argitu egin nahi dute: Datorren ikasturtean komunitaterik egon ez arren, San Viatorrek Viatorista izaten jarraituko du. Elgoibartik bi Viatorista etorriko dira egunero, asoziatuek Arrasaten jarraituko dute eta bestalde, Koldo Rodriguez eta Jose Luis Rubio noizean behin Arrasatera etorriko dira lan batzuk betetzera.

Eskibelen ustez, datorren ikasturtea bukatu ondoren, komunitate berri bat sortuko da Arrasaten, agian Eskoriatzako, Elgoibarko eta Arrasateko komunitate Viatoristak batuta.

“Sestaon behartsuekin egingo dugulan”

Aita Querbes komunitateko Viatoristek Sestaon alde egingo dute datorren urtean. “San Viatorreko ikastolan bizi izaten geundela, herriarekin kontakturik ez genuela eta beti lanari itsatsita geundela konturatu ginen. Horregatik, etxebizitza batera alde egitea erabaki genuen. Modu horretara pobreekin harreman bizi-bizia izango genuela uste genuen baina ez zen hala izan: Arrasate sozialki oso ondo dagoela ikusi dugu, ia ia behar guztiak dauzka beteta. Orduan, benetako beharra zegoen lekura joaten erabaki genuen. Bilbo aldean, Sestaon, Frantzizkotar batzuekin egon ginen. Euren lana ikusirik zereginik badugula ikusi dugu. Sestaon %50eko langabezia dago eta ijito eta behartsu ugari bizi da. Hasiera batean, bertara joango gara eta ikusi, entzun eta ikasi besterik ez dugu egongo: gure asmoa ez da inolako “txiringitorik” montatzea. Otarak egitearen aitzakiaz, jende behartsua batzen duten zentru bat dago Sestaon: adibidez, ijito amei jatorduak prestatzen erakusten zaie, euren seme-alabek egun guztia goxokiak jaten pasa ez dezaten, kristalik gabeko leihoak plastikoz tapatu ordez kristalak nola jartzen diren, eta horrelako mila behar. Gainera, eliz-errealitate eta antolaketa oso handia eta ona dago Sestaon, edozein harrizteko modukoa. Bertara joan eta astiro-astiro euren bizimodu sartuz joango gara.”

PENALTIAK

• Euskadiko eskalada txapelketako froga bat antolatu dute Bergarako Labegaraietako kiroldegian. Uztailaren 16an goizeko 10.30etatik aurrera izango da. Lehen aldiz, Bilbon eta Elgoibarren antolatu zuten mota honetako txapelketa bat eta Bergarako hirugarrena dugu. Euskadin bizi den edozein eskalatazailek har dezake parte. Parte hartzaile guztiek aurtengo federatu txartela izan beharko dute. Antolatzaileak ez dira partaideak orokorrean izan ditzaketen lesioez arduratuko. Lehen bost tokietan sailkatzen zirenek jasoko dute sariak.

IV. San Bartolome futbito txapelketa

Uztailaren 16tik 17ra IV. San Bartolome txapelketaren barruan, 24 orduko futbito izango dugu. Txapelketa honekin abuztuan izango diren Uribarriko jaietarako dirua lortzea nahi dute antolatzaileek. Txapelketako neurketak Iturrieko kiroldegian jokatu dira. Larunbatean eguerdiko 12etan emango zaio hasiera futbito maratolari eta igandean ordu batean finala jokatu da, egun osoko txapelketari bukaera emanez. Izene-matea 4.000 ptakoa da. Ohar moduan, bertan parte hartu nahi duzen guztiok uztailaren 15ean arratsaldeko 7etan Udaletxeko areto nagusian bilera izan-



Partaidetza handia espero da futbitoko 24 ordutan

go duzue. Egongo diren sariei dagokienez, talde onenak, lehen postua lortzen duenak, garaikurra, bildotsa eta sorpresa jasoko ditu. Bigarren sailkatuarentzat garaikurra eta

urdaiazpikoa izango dira. Hirugarrenak garaikurra eta 4 kilo txuleta jasoko ditu saritzat eta laugarrenarentzat ere egongo da saririk: garaikurra eta sorpresa.

Mondrari bukatu zaizkio oporrak



Mondrako 3. mailan jokatu duten jokalariek astelehenean hasi zuten aurrendenboraldia. Nedza Zivojevic eta Jose Luis Sextoren gidaritzapean lehen korrikaldiak eta lehen ariketa fisikoak egin zituzten. Aurten jokalarien arlo fisikoaz Sexto arduratuko da eta arlo teknikoaz, berriz, Nedza

Bosniarra. Lehen entrenamenduan aurpegi ezagun asko ikusi genuen, baina hain ezagunak ez ziren beste batzuk ere bai. Lau jokalarari igo dira aurten 3. mailara: Beñat Apraiz, Sergio Garcia, Dabid Luri eta Agustin Calleja. Hiru fitxaje berri ere egin ditu Mondrak; UDatik Gorka Otxoa etorriko da, Eskoriatzatik Akizu eta Arkautz. Gainera, lehen entrenamenduan Gasteizko 5 jokalarari egon ziren. Jokalarari hauek probatzera etorri dira eta entrenatzailearen gustokoak badira, datorren denboraldian Mondran ikusiko ditugu, behar bada. Iazko plantilatik baja bakarria Dieguezena dugu, baina Aranburuzabala eta Iker Balzategiren etorkizuna oraindik kolokan dago, bi jokalarari hauek ez baitute erabaki Mondran jarraituko duten hala ez. Hauez gain, fitxaje gehiago ere egon daitekeela jakin dugu. Entrenamenduak abuztu arte izango dira; abuztuko lehen astean oporrak hartuko dituzte eta ondoren berriro ekingo diote lanari 94-95 denboraldia hasi arte.

*Mendi
taberna*

MENDI DA ZURE ETXEA

Maalako Arrabala, 4
Tfnoa: 79 20 54

Begoña
lurrindegia
Drogeria
Jostailuak
Opariak

Gipuzkoa Etorb. 33,
Musakola Auzoa,
Tfnoa: 79 03 73

**ZUBIZARRETA
TAILERRAK**

Gipuzkoa Etorbidea, 22
ARRASATE
Tfnoa: 79 15 65

**Monte
taberna**

Maalako arrabala, 11
Tfnoa: 79 20 56

Aurten K-2, hurrengoan atsedena?

- Espedizioari buruz, ze balorazio egin dezakezu?

- Balorazio ona, bi urtetako lana bukatu dugulako, bi urtetako izerdiak izan dira. Gure espedizioa mugatuta positiboki baloratu behar dugu, izan ere, lau lagunetik denok igo dugu, lehen aldiz zabaltzen zen bide batetik joan gara, oso aguro egin dugu...guzti hau entzunda, pozik egoteko arrazoiak baditugula uste dugu.

- Nolakoa izan da zuen arteko harremana?

- Oso jende desberdina elkartu gara, bakoitzak bere ideiak eta pentsaketak zituen, baina, hala ere, gure artean oso harreman ona egon da.

- Denbora pasatzeko zer eginen zenuten?

- Aurten oso denbora gutxi pasatu behar izan dugu, astebete. Egun horietan berandu jeikitzen ginen, arrosatu, berriketan egon, bizitza sozial apur bat egin inguruko espedizioekin, partxisean jokatu, zeozer irakurri, zeozer idatzi eta batez ere, jan eta edan. Horixe eginen genuen.

- Hango jendea zelakoa da?

- Musulmanak dira, chii-tak batzuk, Pakistan behe aldekoak Sumitak eta euren artean ez dira ondo konpontzen. Baina gainerakoan mendi aldeko jende dena modukoak zirela uste dut. Mendi aldeko jendea oso desberdina da, komunikatzeko orduan oso irekia, alaia.

-Ze botatzen zenuten faltan?

- Hemen uzten den guz-



K-2ko espedizioak ongi etorri hunkigarria jaso zuen Atxabaltan.

tia botatzen duzu faltan: bazkalosteko kafea, lagunak, etxea, etxe ingurukoak... denak. Gainera han esperientzia polit asko bizi izaten dugu baina huts huts sean zauden une asko daude eta momentu horietan buruak lan asko egiten du.

-Azken metroetan zer pentsatzen duzue?

- "Ea bada behingoz ailegatzen garen!"; nahiko ordu kritikoak izaten dira: kalkuloak egiten hasten zara, ze ordu den, ze ordu-tan iritsiko garen... eta alde horretatik, nahiko ordu kezagarriak izaten dira.

-Azken metroak dira txarrenak?

- Azken metroak txarrak dira baina beti egoten da tartean, irten eta ordu batzutarra oraindik tontorra oso urruti ikusten duzunean une txarrak eta buruari nahi baino buelta gehiago ematen hasten zara.

- Tontorra egitean zer sentitzen da?

- Trankilidadea, zama galanta kendu duzulako baina era berean, kezka izugarria jeitsiera falta delako. Eta jeitsiera ere nahiko

arriskutsua izaten da.

- Tontorrean utzi zenuten zeozer?

- Ez, ez dugu ezer uzteko ohiturarik eta sekula ez dugu ezer aurkitu.

- Zuk Felix, aurten zure gaixotasuna izan dela eta, asko arriskatu duzu, ezta?

- Buelta asko eman dizkiot buruari, txarto nengoen eta oso ahul gainera. Gainerakoak moduan mendira igotzeko lana aportatzeko ez nintzen gai. Gertatu zitzaidana, botikak hartzeari utzi nionean, hobeto jarri nintzen eta saiakera bat egin behar nuela pentsatu nuen. Une batzuk besteak baino hobeak izan ditut baina ez dut sekula nire burua arriskutan ikusi, bestela ez nuen gora egingo.

- Botikak hartzen zenbat denbora egon zinen?

- Infezioa izan nuelako, 15 egun pasa nituen antibiotiko eta beste botika batzuk hartzen. Horretxek utzi ninduen txarto.

- Zuek egiten duzuenak ez du ona izan behar osasunarentzako: gerora begira ze onorio ekar dezake?

- Lan egitea ere ez da ona, ezta? Bai, badaude egun batzuk 8.000 metrotan pasatzen ditugunak eta hori oso txarra da, desgaste handia ekartzen duelako. Baina edozein eliteko kirolletan, badaude une batzuk kirolariak esfortzu gehiegi egin eta burmuinera oxigeno gutxi ailegatzen zaiona, edo ez beharko lukeen adina behintzat. Guri ere gauza bera gertatzen zaigu, 8.000 metrotik aurrera ordu asko egoten gara eta horrek desgaste handia ekartzen digu. Dena dela, desgaste hori errekuperagarria da hilabete batzuetako epean.

- Atxabaltan egin zizuten ongi etorriari buruz zeozer esateko?

- Ondo, oso ondo; dena dela, nahiago genuke hortik ez pasatzea. Baina Atxabaltarekin konpromiso bat daukagu eta alde horretatik gus-tora egiten dugu.

- Komunikabideen gainean zer duzu esateko?

- Ezjakintasuna izugarria dela, mendiari buruz idazten duen jendearen artean ere bai. Ez kazetariekin bakarrik, federazioetan ere despisteak izugarriak izaten dira eta orduan disparteak jartzea normala ikusten dut. Kazetariengan kritikablea zera da, ideiarik ere ez dutenean nola ausartzen diren zerbait idaztera. Bestela, ondo konpontzen gara; gainera, babesleak ditugun neurrian komunikabideetan agertu beharra daukagu.

-Hurrengoa?

- Ez dago hurrengorik. Nik beste arazo batzuk ditut konpontzeko espedizio baten pentsatzen hasi aurretik.




* MIREN ARRIETA

Depilazio elektrikoa: Blend metodoa

• **Blend** metodoa edo ekin-tza bikoitza izeneko sistema erabiltzean bi argi korronte-ekin ari gara lanean, frekuentzia altuko korrontean eta korrante galbanikoaz hain zuzen ere. Beraz, metodu horrekin lan egiteko ondo ezagutu behar duzu erabilpena.

• Ekintza bikoitzak bi ezaugarri nahasten dituenez oso efektiboa da eta era berean, azala erretzeko ez dago inolako arriskurik. Metodu horrek orratz Koniko baten laguntza behar du. Orratzak, ileak ondo irten daitezela laguntzeaz gain, azala erre ez dadin laguntzen du.

• Depilazio elektrikoa gorputzeko edozein ataletan egin daiteke. Hantetan, besapetan, sabelpean, mozuan eta baita bularretan ere.



• Era honetako depilazioak ez du inolako arriskurik, makina ondo erabiltzen jakin ezker.

• Depilazio elektrikoa egiteko tratamenduen iraupena, ile motaren arabera da. Oso gatxa da ze ile mota dugun jakin aurretik epe konkretu bat zehaztea.

Tratamendua hilabete batzutatik 2 urte bitartekoa izan daiteke.

• Depilazio elektrikoa egitean gorputzeko atal hori zaindu beharra dago, ez ikutzen ahalegindu behar dugu, infekziorik ez izateko.

• Tratamenduan zaude-nean ez da gomendatzen

eguzkia hartzea.

• Normalean depilatu ostean pomada bat ematen dizute azala ondo sendatzeko. Baina bestela etxean ur oxigenatua edo 60°ko alkohola erabil dezakezu infekzioak ekiditzeko.

* ESTETIZISTA

Altzariak
Diseinua
Apainketa

M
ARENAZA

Bizkai, 1 ARETXABALETA
Tfnoa: 79 08 07

• **ARTEA** •

Eskulanak eta lientzoak
ENMARKAZIOAK
Laminak, Izpiluak,
Margoak

Ferrerias, 11 Tfnoa: 79 10 95
ARRASATE

ERAIKUNTZAK

Olarte, 30 etxabea.
Tfnoa: 79 77 11
Faxa: 79 77 11
ARRASATE
Postakutxa: 118

Fubia
Cinetakoak

AUKERA ZABALA

Biteri, 1 ☎: 79 66 53
ARRASATE

Mitarte, 14 ☎: 79 16 00
ARETXABALETA

Z E R N A H I A G O ?

Anparo Ruiz Garcia

Jai-Zaleko sukaldaria



- Zein janari prestatzen duzu ondoen? Tortilak.
- Zein gustatzen zaizu gehien prestatzea? Menestrak.
- Urrea ala zilarra? Urrea, jakina.
- Ilea tintatzen duzu? Bai.
- Zenbat ordu egiten duzu lo? Oso gutxi, 5 bat.
- Afiziorik? Bai, irakurketa.
- Erosten duzu erroparik beherapenetan? Ez.
- Kolorerik gustokoena? Erropetan beti erabiltzen dut beltza baina berdea dut gustokoen.
- Etxeko bazkaria edo jatetxeetakoa? Etxekoa esan behar...!
- Gomendatu jatetxe bat: Lasa.
- Musikalari bat? Benito Lertxundi gustatzen zait.
- Zelako goxokiak dituzu gustokoen? Ez dut goxokirik jaten.
- Arrasatetik alde egitekotan; nora? 21 urte daramatzat hemen eta orain Madrilera noa bizi izatera.
- Penaz? Bai, uste nuena baino pena handiagoz.
- Zer botako duzu bereziki faltan? Paisaia.
- Zer ez? Ez dago ezer gustoko ez dudarik; oso oroitzapen polita daramat.
- Zerk lotsatzen zaitu? Ez naiz batere lotsatia baina jende aurrean hitzegiteak uste dut.
- Udarako gomendio bat? Eguzki gehiegi ez hartzea.

LABURRAK

Argazki lehiaketa

“Gazteak Naturan” izenburupean, zabalik dago ASA taldeak eta Gazte Zerbitzuak urtero antolatzen duten argazki lehiaketa. Parte hartu eta irabazi nahi baduzu, adi hurrengo datuetara: Bi kategoria egongo dira: bata Deba Garaiko 14-20 urte bitartekoentzat eta bestea 21-35 urte bitartekoentzat. Bi modalitate izango dira aukeran, zuri-beltzean nahiz koloretan. Lehen kategoriako argazkien formatoa librea da; bigarrena, 18x24 gutxienez eta 30x40. Lanak aurkezteko epea urriaren 14an amaituko da eta erabakia urriaren 21ean emango da ezagutzera Monterron Kultur etxean arratsaldeko 7etan.


Sari zoragarriak egongo dira. Anima zaitetz!

**'CARFRA' SUKALDE
ALTZARIAK
5 URTETAKO
GARANTIAZ**

**ELEKTROGAILUTAN
MARKA GUZTIAK**

**ARMAIRU
ENPOTRATUAK
ISPILU-ATE
KORRIGARRIEKIN**

**BARNE ETA
KANPOKO ATEAK**



Vanesa

CF
CARFRA

Berango
ALTZARIAK

ERAKUSKETA

Legarre pabiloia z/g

Gipuzkoa Etorbidea

Tfnoa: 79 01 92

ARRASATE

DeLonghi

marka
italiarraren
banatzaile
ofiziala



Monterronen 60 bat pintura daude ikusgai.

Mila erakusketa

Mila ez, baina bai makinatxo bat. Uztailean zehar, hainbat ikastarotako ikasleek egindako lanak erakutsiko dira Harresi Aretoan nahiz Monterronen.

Hasteko, momentuotan Monterronen dagoena. Kurtso osoan zehar pintura kurtsoan parte hartu dutenek, euren oleo, akuarela, pastel eta pintura abstraktuak erakusten dituzte. Erakusketa bikain hau, uztailaren 17ra arte egongo da zabalik.

Pinturakoa amaitu eta Famili eta Gizarte Heziketarako Zentruak beste erakusketa bat hasiko du: margo eta berriztutako altzariena. Azkenengo hau, azken hiruhilabete honetan egindako ikastaroaren fruitu da. Takiloiak, ispiluak, aulkiak... denetarik altzariak berrizten ikasi dute ikastaroan ibilitako 11 ikasleek.

Aretoa aldatuz, Harresi Aretoan uztailaren 12tik 22ra bitartean, benetan erakusketa bitxi bat izango dugu ikusgai: Manuel Martin arrasatearrak, kobrez egindako eskulanak jarriko ditu. Aspaldiko afizioa da hau Martinentzat eta egia esan, kobrezko zuhaixka loradunak eta bizikletatxo zoragarriak egiten ditu.

Badakizu: uztailean zehar, mila erakusketa!



Haur-jolasek jai guztietan izaten dute arrakasta.

Jaiak nonahi

Maalako Errabalekoak

Uztailaren 22an eta 24an ospatuko dira. 22an, umeentzako jolasak, trikitixa, ohizko afaria estradetan, gaueko dantzaldia eta suzko erruberak izango dira. Igan-dean berriz, besteak beste, Plus-Ultra tabernan luntxa egongo da.

Ferriasekoak

Uztailaren 26an. Etxafleruak, txistulariekin kalejira, kaleko hildakoen aldeko meza parrokiari, haur jolasak... denetarik! Gauean, herri afaria, dantzaldia eta helduentzako zaku lasterketa eta jolasak.

Kanpanzarko Erromeria

Uztailaren 31an, San Ignazio egunean. Kanpanzar gainean, 12ak aldera bolo eta doke jokuak izango dira eta ondoren bazkaria. Urribarriko San Bartolomeak berriz, abuztuaren 24an izango dira.

Santamainakoak

Uztailaren 15ean hasi eta 17ra arte luzatuko dira. Egun potoloena 17an izango da eta Bolo-Palama txapelketa, futbito finalak, umeentzako jolasak, Rana txapelketa, dantzaldia... denetarik! Jakin, jubilatuek egindako eskulanen erakusketa ere ikusgai izango dela jaietan zehar Toki Argin.

LABURRAK

Ingurugiro Eskolako beka

Arrasateko Ingurugiro Eskolan lankidetzan arituz, ingurugiro gaietan prestatzeko beka atera du Arrasateko Udalak. Bekaren iraupena 1994ko irailaren 1etik 1995eko ekainaren 30era arteko iraupena izango du. Bekadunak Ingurugiro Eskolan beteko ditu bere prestakuntza eta lankidetzan iharduerak, egunean 4 orduz, ordu horien banaketa kurtsoko egutegira moldatuko delarik. Unibertsitate diploma edo Lanbide Hezkuntzako 3. maila duenak eskuratu ahal izango du beka hau. Euskara eta erdaraz gain, beste hizkuntza baten ezagupena ere eskatuko da. Bekaren zenbatekoa hileroko 60.000 ptakoa izango da.

Eskabidearekin batera, NAREN fotokopia, Ikasketen ziurtagiria, Curriculum Vitae eta makinaz idatzitako gehienez 5 orrialdetako txostena aurkeztu behar du interesatuak. Elkarrikeriketa pertsonal bat egingo zaio, bekako gaiari buruz duen interesaz, asmoetaz etabar.

Informazio gehiago udaletxean.

Epelde

- Estudioa
- Ezkontzako erreportaiak
- Bideoa
- Argazkiak

Iturriotz, 24 Maixu Arano, 8
Tfnoa: 79 19 71 Tfnoa: 79 26 23

beatriz

oinetakoak eta poltsak

Erdiko kale, 11
Tfnoa: 79 14 33
ARRASATE

Txitxinpe

Berezitasunak:

Kafea, ardoa, urdaitegia, fruitu lehorrak

Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE Tfnoa: 79 67 76

R

Rikardo Arregi hil zela 25 urte bete ziren joan zen astean. Horren oroimena gorde nahirik hainbat aipamen jaso ahal izan dugu prentsan. Kazetaritza sari ezagun bat ere eratu da 60ko hamarkadan kultura eta politika mailan hain ezagun izan zen gizon honen oroimenez.

Politikan ezkertiarra bazen ere, "zubi" eta bate-ratze lana egiten zuela gogoratzen dute ezagutzen zutenek. Euskaltzalea, abertzalea, 26 urterekin hil zen. Aurretik espetxeraturik egon zen, eta han ezagutu zuen Josu Otadui mon-drauetarra. Adiskidetasun harren ondorioz Arrasatera ere etorri izan zen, erretratu honetan ageri denez.

Euskal Herriko politi-kan industrializazioa eta haren ondorioak oso kontu-tan hartu beharrekoak zirela esan ohi zuen. Kooperati-bismoa hasieratan zegoen artean, eta mondrauetarrek eman zioten haren oinarrien berri ere. 1965eko azaroa-ren 12an hitzaldi bat emate-ra etorri zen Arrasatera. "Euskalduna industrializa-tutako gizartean" gaiaz ber-ba egin zuen, Gurea zine-man, jende askoren aurre-



Rikardo Arregi, 1966ko Euskal Jaian Arrasaten.

an. Harrigarria izan ei zen, gai horri buruz eta euskara hutsez zein ondo berba egin zuen.

Hurrengo urtean, 1966-ko ekainaren 26an Euskal

Jaia egin zen Arrasaten, eta Kultur astearen amaierako ekitaldira etorri zen Ando-aindarra. Jose Mari Lasaga-basterren argazkian, **Jokin Barrutia**, Durangoko kul-

tur elkarteko ordezkari bat, **Jesus Atxa, Josu Ota-dui, Nikanor Mujika, Jo-seba Agiriano** eta **Rikar-do Arregi**, azken biak ma-kurtuta.

"EDERTU"
ileapaindegia

San Andres auzoa
Tfnoa: 79 04 28


HAURTOKO

Arrasate Pasealekua 4,
Tfnoa: 79 14 90
ARRASATE

**ELEKTRONIKA
ARTIKULUEN
SALMENTA**

J. Carlos Guerra, 1 Tfnoa: 79 91 64 ARRASATE

• ARANTZA OZAETAREN GOMENDIOA •



Jazza eta Rythm and blues musika oso gustoko ditu Arantzak. Eta sasoi honetan zer hoberik jazzaldietara joatea baino? Oso aukera onak ditugu egunotan: Aste honetan zehar Gasteizkoa da, ostiralean B.B. King handiari entzuteko aukera oraindik. Arantzaren ustez gora egin du jaialdi horrek eta izar handiak ekartzen dizkigute ia etxeraino. "Sarrerak modu onean izaten dira, garestiegi barik, lortzeko arazoren batzuk izaten diren arren. Soinua ez da oso ona izaten, baina giroa eta jendetza...!"
Eta atzerriko musikari ospetsu horiek ezagutzeko aukerak gero Donostian jarraituko du.

• PROGRAMAZIOA •



18 Astelehena

13.30etan
 Egurdiko Berriak
 13.35etan
 "Kukaratxa Motel" (errep.)
 20.00, 20.30, 21.00etan
 Berriak
 21.30etan
 Bakarka. Gonbidatua: Juan Luis Bikuña.
 22.00etan
 "Asterix eta Zesarren ustekabea"

19 Asteartea

13.30etan
 Egurdiko Berriak
 13.35etan
 Bakarka (errep.)
 14.05etan
 "Asterix eta Zesarren ustekabea" (errep.)
 20.00, 20.30, 21.00etan
 Berriak
 21.30etan
 Bakarka. Gonbidatua: Ion Idigoras.
 22.00etan
 "Banpiro ehiztaria"

20 Asteazkena

13.30etan
 Egurdiko Berriak
 13.35etan
 Bakarka (errep.)
 14.05etan
 "Banpiro ehiztaria" (errep.)
 20.00, 20.30, 21.00etan
 Berriak
 21.30etan
 Bakarka. Gonbidatua: Anne Igarteburu.
 22.00etan
 "Batman"

21 Osteguna

13.30etan
 Egurdiko Berriak
 13.35etan
 Bakarka (errep.)
 14.05etan
 "Batman" errep.
 20.00, 20.30, 21.00etan
 Berriak
 21.30etan
 Bakarka. Gonbidatua: Xabier Arzaillus
 22.00etan
 "Daniel eta lehoien zuloa"


22 Ostirala

13.30etan
 Egurdiko Berriak
 13.35etan
 Bakarka (errep.)
 14.05etan
 "Daniel eta lehoien zuloa" (errep.)
 20.00, 20.30, 21.00etan
 Berriak
 21.30etan
 Bakarka. Gonbidatua: Juan San Martín.
 22.00etan
 "Excalibur"

• KOMIKIA •



Leire Zubikarai.



EGVZKIGRAF

**Grafikagintza. Tipografia.
 Offset industrialia**

Basabe bidea, A-2 ARETXABALETA Tfnoa: 79 29 41

- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Liburuskak
- Merkatal inprimakiak
- Bulegoko materiala

GORKA
 ILEAPAINDEGIA
 SOLARIUMA

Ferrerias, 35 ARRASATE
 Tfnoa: 77 13 78

Etxebizitzak

- **Bikote gazte bat** alokatzeko pisu bila Arrasate edo inguruetan. Jantzita ala hutsik, berdin da. Tfnoa: 79 02 26. Patxi. Lan orduetan.
- **65 m²tako pisua salgai** Arrasaten. Navas de Tolosa kalean. 2 logela, egongela, komuna eta sukaldea. Eguzkitsua eta 9 m²tako ganbara. Gas instalakuntza. Tfnoa: 79 70 58.
- **Torreveijan** apartamentua alokatzen da. Igerilekua eta TB. Tfnoa: 75 64 50.
- **Ikasle batek** Donostian gela bat alokatuko luke. Tfnoa: 79 86 06. Itziar.
- **Donostian etxebizitza** alokatzen dut abuztuan. Amara inguruan. merke. Tfnoak: 71 40 02 / 71 50 87.
- **Etxe bat alokatuko nuke** abuztutik aurrera. Tfnoa: 77 04 58.
- **Neska batek** bakarkako logela alokatuko luke pisu konpartitua edo pisu merkea uztailerako. Tfnoa: 94-410 28 97.
- **Pisu bat 4 lagunentzat** nahi nuke. Eskola Politeknikotik gertu. Tfnoa: 86 18 58. Iban.
- **Leioan pisua osatzeko** 2 pertsona behar dira, logela konpartitzeko prest. (Bus geltokiaren ondoan). Merke. Tfnoak: (94) 447 55 40 - (943) 79 47 16. Kaitin.
- **Arrasaten ikasle pisu** batean gela bat behar dut. Dei egin 51 91 21 tfnora.
- **Apartamentu bat alokatzen da** Torreveijan. Hondartza ondoan. Tfnoa: 71 63 19.
- **Pisu bat alokatu nahiko nuke.** Etxe bat alokatu nahi badidazu edo lekuren bat baduzu deitu (94) 625 04 60 tfnora.
- **Erdialdean pisu bat salgai.** Berria dago. Tfnoa: 79 42 13.

Lana

- **Kimikan lizentziatuak** klase partikularrak ematen ditu. Matematikak, fisika eta kimika. Tfnoa: 79 58 23.
- **Haurrak, pertsona nagusiak** edo gutxitu fisiokoak zaintzeko prest nago. Tfnoa: 76 52 08.
- **Zuzenbide karrera** bukatu berri dut eta klase partikularrak emateko prest nago. Tfnoa: 79 21 41. Nuria.
- **Ingeleseko klaseak** emango nituzke abuztuan eta irailean 8. mailara arte. Tfnoa: 79 11 54.
- **Ingeleseko klaseak** emango nituzke. Tfnoa: 79 15 62. Nagore.
- **REM eko 8. mailako klaseak** behar dira uztaila eta abuztuan. Tfnoa: 79 18 58. (deitu 8etatik 9etara).
- **Marrazki diedriko-ko klaseak** emango dizkidan norbait behar dut. Ordainduko dut. Tfnoa: 79 08 37.
- **Neska euskalduna** eta esperientziaduna behar dugu etxeko lanak egin eta ume bat zaintzeko. Tfnoa: 79 55 28.
- **Informatikako 2. mailako ikasleak** OHOk klase partikularrak emango lituzke uztailean. Tfnoa: 79 34 58.
- **Lizentziatua** latin, lengua, euskera edo OHOk klaseak emateko prest. Abuztu eta irailla arratsaldetan. Tfnoa: 79 11 99. Itziar. Dei egin 12.30etatik 2ak arte.
- **Emakume bat behar da** Arrasaten haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tfnoa: (945) 28 84 05.
- **Injinerutzako ikaslea** klaseak emateko prest. Arloak: matematikak, marrazkia eta fisika. Tfnoa: 79 16 19.

Salerosketak

- **Narruzko kazadora beltz** bat (kreamaileradun horietakoa) salgai. Berri-berria dago. 15.000 pta. Tfnoa: 79 81 44. Manu.
- **Salgai:** LOWREY teklatura, PHILIPS telebista 20 pulgadakoa. Oso merke. Gauzez deitu 79 82 47 tfnora.
- **Karro denda** salgai. 6 plazatakkoa. Egoera onean dago. Tfnoa: 79 65 70.
- **Idazmakina elektriko** eta memoriaduna salgai. Tfnoa: 79 47 14.
- **R.9 baten** asientoetarako fundak erosiko nituzke. Tfnoa: 77 04 21.
- **Lasterketa bizikleta salgai.** Kuadroa "MENDIZ" eta "LOOK" Pedal automatikoekin. Prezioa: 40.000 pta. Tfnoa: 79 25 15
- **Gente famatuaren argazki** originalak saltzen ditut: Julen Guerrero, Alkiza, Sergio Dalma, Alejandro Sanz, Amistades, Duncan... e.a. Idatz ezazu eta eskatu zerrenda. Sartu gutunazalean 18 ptako 4 seilu. Helbidea: Igor Galo. Avda. Zarauz 13-3.. 20009 Donostia. Tfnoa: (943) 2106 40
- **YAMAHA FZR 600.** Merke. Tfnoa: 79 97 48.
- **YAMAHA gitarra** eta gitarra gordetzekoak salgai. Prezio ona. Tfnoa: 11 13 79. Iñaki. 8etatik 2etara.

Denetarik

- **Abuztuaren 1ean edo 2an** Edinburgora noa kotxez eta hil bereko azken egunetan bueltatuko naiz. Edinburgoruntz joan nahi baduzu, nirekin etorri zaitezke. Erdibana ordainduko dugu eta merke-merke aterako zaizu. Tfnoa: 79 69 66. Joe.
- **Pisu edo lokal** txikia behar dugu alokatzeko. Merke. Tfnoa: (945) 27 98 68. M^a Luisa.

Aste Gazte

Unibertsitaterako autobusak

• Donostiara eta Bilbora, egunero joan etortzeko autobus zerbitzua antolatzen du asmoa du "Aixola" ikasleentzako. Goizez nahiz arratsaldean, ordutegi ezberdinak. Interesatuok Gazte Bulegoan eman dezakezue izena, irailak 23 baino lehen.

Ikastaroak

• Joskintza Industrialari buruzko ikastaroa. Beteberrak: langabezian egotea, joskintza arloan enpresa bat eratzeke gertu egotea, ikastarora joateko konprometea.

zua. Iraupena, 1994ko urriaren 3tik 1995ko uztailaren 4 arte. Epea: uztailak 29.

Txartelak

• "Nazioarteko ikasle txartela". Atzerrira zoazten ikasleoi txartel hau eskuratzeko komeni zaizue, ikuskitze, museo, garraio eta abarretan beharpenak izateko. Donostian, Gasteizen nahiz Bilbon lor dezakezue.

• "Aterpe txartelak". Oporretan aterpeak erabiltzeko asmoa duzuenok, ez ahaztu aurtengo txartela eskuratu behar duzuela lehenengo. Horretarako, ohi bezala, Gasteiz, Bilbo nahiz Donostiara

joan beharko duzue.

Lehiaketak

• "Gazteak Naturan" V. argazki lehiaketa. Gaiak: gazteak naturan. Bi kategoria: a) Deba Garaiko 14-20 urte bitarteko gazteak; b) 21-35 edozein. Bi modalitate: a) zuri-beltzean; b) koloretan. Epea: urriak 14.

• Irun Hiria Literatur Sariak 1994. Sail ezberdinak: elaberria, olerkiak, saiakera. Lehiaketetan euskarazko nahiz gaztelaniazko idazleek parte har dezakete. Epea: uztailak 30.

• "V. Ipuin Lehiaketa. Portugaleteko Hiria." Euskaraz nahiz erdaraz aurkez daitezke lanak. Sari ezberdinak. Epea: uztailak 29.

"Hauxe da krisialdia: zaharra dena ez da guztiz hiltzen eta gaztea dena ez da guztiz sortzen".

ANTONIO GRAMSCI.



Informazio gehiago: GAZTE ZERBITZUA Tfnoa: 77 00 65



UNITED COLORS
OF BENETTON.



BEHERAPENAK

Maalako Arrabala, 13 ("Okendo Kirolak"en ondoan) Tfnoa: 79 50 78 ARRASATE



ZURE OPELAK AIRE GIROTUA DOHAINIK DOHAINIK

Freska zaitzen!

Udako freskagarria prestatzen dizu Opelek.
Zure Corsa, Astra edo Vectra berria Aire girotu ekologikoa
(edo deskontu baliokidea) oparitzen dizu gutxienez.
Opel Injineritza Alemaniarraren oparia duzu.
Freska zaitetz!



Hilabete honetarako promozio baliagarria.



OPEL

Z A I N G A U Z K A Z U

**10^o
URTEURRENA**

TALLERES OLA

Olabarrena Auzoa, z/g. Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46. **BERGARA** (Gipuzkoa)
Erakusketa **ARRASATE**n: Loramendi, 2. Tfnoak: 79 05 86

Zerbitzu Ofiziala **ARETXABALETAN**
TALLERES NORTE

Pol. Ind. BASABE. Pabellón A-13. Tel. 79 62 65

OPEL BANATZAILE OFIZIALAK, ESPERIENTZIAZ ONENAK.